

Marmari Leizakoa aldizkaria

37. zenbakia / 2025eko abendua



- Goiuri Zabaleta pilotaria
- Arnasguneak desagertzeaz?
- Atekabeltz Gaztetxeak 20 urte
- Hika indartzeko saiakera
- eta gehiago...

Txapela janzteko moduko urtea!



zenbaki honetan:



3-5. or. Goiuri Zabaletari elkarrizketa

6-7. or. Arnasguneak desagertzeaz?

8-9. or. Animen gaue

10-12. or. Atekabeltz Gaztetxeak 20 urte

13-15. or. Leitza, Joana Sagastibeltzaren begietan

16-17. or. Etorri euskarara! ikastaroa

18-23. or. Hika indartzeko saiakera

24-25. or. Erleta eskolako jangela komunitarioa

26-27. or. Leizako gazteak Salto udalekuean

28. or. Xabat txapeldun!

Pilotaria

Goiuri Zabaleta

«Lehen
pilotakadatik
sentitu nuen
zerbait
berezia»

JOLASETIK PASIORA

Pilotaren mundua gizonezkoen esparrua izan da urte luzez, baina azken urteetan emakume askok horma horiek apurtu dituzte ausardiaz eta lan gogorrekin. Emakume horietako bat da **Goiuri Zabaleta Rodriguez**, frontoian patxadaz eta grinaz jokatzen duen pilotaria. Ibilbide oparoa osatu du, oso gaztea den arren (16 urte besterik ez ditu), txapel eta sari asko eskuratu baititu dagoeneko. Horiek lortzeko ordu asko pasa ditu frontoian zein errepidean, eta lan handia egin du pilotari leitzarrak. Baita sakrifizioak ere, kirolari askoren antzera, lagunak eta aisialdia alde batera utzi behar izan ditu askotan, entrenamendu eta partiduek lehentasuna dutelako. Baina 'gustuko tokian aldaparik ez' esaerak dioen gisan, Goiuri pozik ari da gustatzen zaiona egiten. Beharbada ez zuen pentsatuko jolas moduan hasitako bide hark hainbeste-



Goiuri Zabaleta pilota partidu batean.

ko poztasuna emanen zionik. Gaur egun, Euskal Herriko emakume pilotaririk nabarmenenetako bat da.

■ **Noiz eta nola hasi zinen pilotan?**
Orain dela bederatzi urte inguru hasi nintzen. Nire gelako mutilak ikusten

nituen errekreoetan pilotan, eta egun batean beraiekin jolastera animatu nintzen. Gustatu zitzaidan, eta amak pilota eskolan apuntatu ninduen. Horrela hasi zen dena, modu errazean, presiorik gabe. Hasieran ez nuen helburu gisa pilotan aritzea, baina lehen pilotakadatik



Goiuri 2024an irabazitako 4 t'erdiko txapela eskuan duela.

bertatik sentitu nuen zer bait berezia, konexio moduko bat pilotarekin.

■ Gogoratzen al duzu zure lehen partida edo entrenamendua?

Lehen entrenamendua ez dut zehatz-mehatz gogoratzen, baina bai nork entrenatu ninduen: Luis Lizartzak. Oso gustura sentitu nintzen berehala, eta hark asko erakutsi zidan, pilota munduaz. Gehienetan mutilen inguruan ibiltzen nintzen, eta haiek ez zuten inolako arazorik nirekin jolasteko, jarrera on horrek asko lagundu zidan. Giro hori funtsezkoa izan zen nirekiko konfiantza lantzeko. Haiekin jolasteak ez ninduen beldurtu, are eta gehiago, motibatu egin ninduen.

■ Zer edo nor izan zen pilotan has-teko bultzada nagusia?

Nire kabuz hasi nintzen. Etxean pilota ikusteko ohitura handia zegoen, asko ikusten zen, eta horrek pizten zidan jakin-mina. Aita kirolzalea izan da beti, eta nahiz eta pilota utzi behar izan zuen, haren zaletasunak eragin handia izan zuen nigan. Pilotak, beraz, familiako giroarekin lotura zuzena izan du nire bizitzan. Txikitatik bizi izan dut kiro-

laren balioa, eta pilotak hori guztia bil-tzen du: diziplina, erronka eta pasioa.

■ Zergatik pilota eta ez beste kirol bat?

Probatu bezain pronto gustatu zitzaidan pilota. Futbolean ere aritu nintzen, baina pilotak beste zer bait zuen. Nire ustez, entrenegarriena da, bakarka aritzen zarelako, eta neurri handi batean zure buruaren aurka jokatzeko duzulako. Errit-moa, estrategia eta buru-lana uztartzen dituen kirola da, eta horrek liluratu egi-ten nau.

IBILBIDEA: LORPENAK, PORROTAK ETA BIDEAN IKASITAKOAK

Goiurik ibilbide bikaina osatu du urte gutxian, hainbat txapel eskuratu ditu, eta guztien artean bat nabarmentzen du “4 t'erdiko garaipena. Hori da niretzat bereziena” dio harrotasunez. “Ez baka-rrik emaitzagatik, baizik eta lanaren ordainagatik. Lan gogorraren fruitua izan zen, eta batez ere nire buruarekin nuen borroka irabazi izanaren poza sen-titu nuen, eta era berean irabazteak nire ahalegin guztiek zentzua zutela esan nahi zuten.”

■ 4 t'erdikoa irabazi izanaz gain beste zein momentu nabarmenduko zenuke bereziki?

Lehen aldiz elite mailan jokatu nuene-koa, Sanferminetako txapelketan, 2023an. Oso momentu berezia izan zen. Han ohartu nintzen emakume pilotariek zenbateko ikusgarritasuna lortu dugun, eta zenbat falta zaigun oraindik egiteko.

■ Badago zuretzat berezia den fron-toiren bat?

Noski, **Navarra Arena** eta **Bizkaia Are-na** dira nire gustukoenak, zalantzarik gabe. Giro berezia dute, frontoiko za-rata eta jendearen energia sentitzen di-ra hormetan. Bertan jokatzeko ohorea da beti.

■ Eta alderantziz, zein porrot edo une gogor gogoratzen duzu?

Aitortuko dut aurtengo Plazandreak txapelketa galtzea momentu gogorreneta-koa izan dela. Finalean egurra eman ziguten, eta oso zaila izan zen bai kan-txan egotea, bai ondorengo egunak. Bai-na horrelako momentuetan ikasten da gehien. Porrotak ez du zertan negatiboa izan; askotan, indartsuago bihurtzen zaitu.

■ Zein da emakume pilotarien gaur egungo egoera zure ustez?

Bilakaera handia izan da azken urteetan. **Ados Pilota elkarte**a sortu zenetik gau-zak asko aldatu dira. Emakumeen pilo-ta geroz eta ikusgarriagoa da: komuni-kabideetan gehiago agertzen gara, fron-toietan jende gehiago etortzen da gu ikustera, eta txapelketak serioago har-tzen dira. Horrek guztiak ilusioa ematen du. Lan handia egin dugu, eta sakrifizio handiarekin, baina merezi du.

AFIZIOAK ETA NORTASUNA: PILOTAZ HARATAGO

Goiuri ez da soilik pilotaria; bizitzaz gozatzen duen pertsona ere bada.

■ Pilotaz aparte, ba al duzu beste afizio edo hobbyrik?

Lehenbiziko kirola azpimarratuko nuke, asko gustatzen zait, batez ere futbola eta tenisa. Horrez gain, lagunekin egoitea eta musika entzutea ere oso gustuko ditut. Askotan, partida baten ostean, horiek izaten da nire deskonexioa, musika eta lagunak.

■ Musikazalea zara, beraz...

Bai! Musika oso gustukoa dut. Estilo desberdinak entzuten ditut, baina partiduen aurretik aukeratzekotan martxosoa nahiago dut, energia positiboz ibiltzen bainaiz. Beraz, nire playlistean *Autobus Magikoa* taldearen abestirik ez da inoiz falta. Partida hasieretan beti entzuten dut talde kuttun horren abestiren bat edo beste.

■ Pilotari ez bazina, zer izango zinateke?

Ziurrenik futbolaria. Dударik gabe kirolari lotutako zerbaitekin egingen nuke, kirola nire bizitzaren ardatza delako.



Goiuri kuadrillako lagunekin, Emakume Master Cup txapelketa irabazita.

ETORKIZUNA ETA AMETSAK: URRATS SENDOZ AURRERA

■ Zein dira zure hurrengo helburuak?

Txapelak irabazten jarraitzea, eta batez ere 4 t'erdiko txapelketan maila ona ematea. Baina ez dut emaitzetan bakarrik pentsatzen; nire helburua hobetzen jarraitzea da, urtez urte.

■ Gustatuko litzaizuke pilotarekin lotura izaten jarraitzea?

Noski. Gustatuko litzaizuke entrenatzaile izatea, edo neskak pilotan hasteko laguntza ematea. Pilotak asko eman dit, eta gustatuko litzaizuke hori beste batzuei ematea.

■ Zein aholku emanen zenioke pilotan hasi nahi duen neska gazte bati? Pilotarekin eta pilotaz disfrutatzea. Bel-

durak edo presioak ez dezala gain hartu. Galdu edo irabazi, jarrera eta ilusioa mantentzea dira garrantzitsuenak. Denok hasten gara hutsetik.

■ Zein amets duzu oraindik betetzeko?

Mundial bat irabazi nahiko nuke. Badaikit oso zaila dela, baina laster Mexikora joanen naiz mundial bat jokatzera, eta nork daki, agian emaitza onekin bueltatuko naiz. (Elkarrizketa hau Mexikora joan aurretik egin zen. Geroztik jakin dugu brontzezko domina lortu duela Mexikon jokaturako Frontball mundialean, 23 urtez azpiko kategorian. ZORIONAK, Goiuri!!)

■ Eta azkenik, nola definituko zenuke zure burua, nolako da Goiuri Zabaleta?

Nik uste dut pertsona alaia eta lasaia naizela, eta gauzak patxadaz egitea gustatzen zait. Beti nire onena ematen saiatzen naiz, bai kantxan, bai bizitzan. Pilotak erakutsi dit pazientzia eta lanaren balioa, eta horrekin identifikatzen naiz. Erantsiko nuke jendearen gertutasuna ere gustatzen zaidala.

FRONTOIETAKO BELAUNALDI BERRIA

Goiuri Zabaleta pilotarien belaunaldi berriko erreferenteetako bat bihurtu da. Bere jarrerak, ausardiak eta egindako lanak ekarri dute Goiuri emakume pilotarien tontorrera. Goiuriren aurretik ari ziren pilotariek urratu zuten bidea, eta leitzar gazteak ongi asko segitu dio bide horri, markak hautsiz, txapelak irabaziz, eta batez ere, pilotaz gozatuz!



ARNASGUNEAK

Euskarak biziraunen al du arnasmunerik gabe?

Arnasguneak funtsezkoak dira hizkuntza gutxituarentzat eta horiek desagertzea egundoko galera litzateke euskararentzat.

Baina zer dira arnasmuneak? Bi hitzetan esateko, euskal hiztun asko biltzen dituzten guneak dira. Auzoak, herriak, eskualdeak izan daitezke, eta esan dezakegu bertan euskarak arnas hartzen duela. Espazio horietan, bertako hiztun gehienek (zenbait kasutan denek) dakite euskaraz hitz egiten eta beraien artean, egunerokoan, hizkuntza hori darabilte

eguna joan eta eguna etorri. Arnasmuneetan euskara belanez belan transmititu izan da familia gehienetan (gurasoen eta haurren artean), eta euskaraz mintzatzeko arau sozialak du indarra bertakoen arteko gizarte harreman ohikoetan (helduen artean, haurren artean...). Ondorioz, euskararen eta euskal kulturaren nolabaiteko transmisio soziala edo komunitarioa ematen da. Horrela gertatzen da Leitzan ere, euskara nagusi da hemen, gure auzoko beste zenbait herritan bezala: Areson, Be-

rastegin, Goizuetan eta Aranon, esaterako.

Arnasmune hauek edozein hizkuntza gutxituren indarberritze prozesuan berebiziko garrantzia dute, horiek baitira hizkuntza bizien, aktiboen eta gerorako transmititzeko aukera handienak dituztenak. Horregatik, bizirik dauden eskualde hauek bizirik mantendu behar ditugu. Premia handiko kontua da arnasmuneei eustea.

Azkenaldian, ordea, alarma gorria piztu da: ikerlariek diote azken hamar-

kadetako joera ikusita arnaguneak desagertuko direla. Hala gertatuko omen da galera hori eragozteko neurri eraginkorrik hartzen ez badugu. Leitzako adibidera etorri, euskara nagusi den herria dela aipatu dugu. Halere, Leitzan ere ez al da egoera aldatzen ari, gaztelararako joera gailenduz?

Imajinatzen al duzue arnagunea ez den Leitzarik? Edo gure herrian euskara nagusi ez den beste errealtaterik? Etorkizunean euskara bezainbeste gaztelera entzungo balitz Leitzako plazan, eskola atarian edo denda-tabernetan?

Faktore askok eragiten duten aldaketa dela argi dago, ez da hizkuntza portaeren eta ohituen aldaketa soilik, horrekin batera bestelako arrazoia ere gertatu dira euskararen erabilerak behera egiteko, esaterako migrazio kontuak, gero eta familia gehiago heldu baita gure herrira bizitzera, horietako gehienek euskara ez den beste hizkuntza bat dakarte. Horrez gain, teknologiek, pantailek, sare sozialek... gero eta presentzia handiagoa dute, batez ere gazteen artean, eta askotan gaztelaraz aritzen dira.

Beraz, hizkuntza ohiturak aldatzen ari dira eta joera bat izaten ari dela azpimarratu dute ikerlariek. Joera horrek berebiziko kezka sortzen du, eta kezka horretatik abiatuta, UEMak ikerketa bat egin du hemendik urte batzuetara euskararen egoera zein izan daitekeen jakiteko. 2036. urtean jarri du fokua, eta Siadeco ikerketa etxeari ema dio azterketa egiteko enkargua: **Norantz doa euskara? Hego Euskal Herria 2036. Proiektzio demolinguistikoa.** Ikerlan horretan hiru ondorio nabarmendu daitezke:

- Euskara atzeraka ari da eremu euskaldunenean, ondorioz eremu hau ahuldu egingo da, arnaguneak ia desagertzearaino. Ondoko taulan ikus dezakezue arnaguneen gainbehera datuetan:



URTEA	1991n	2021ean	2036an
Arnaguneetan bizi den edo biziko den biztanle kopurua	185.000	84.000	7.000

Iturria: Norantz doa euskara? Hego Euskal Herria 2036 proiektzio demolinguistikoa (Siadeco).

- Haurren eta gazteen artean atzerapauso argia aurreikusten da, eta azken hamarraldietako lorpen handienetakoa kolokan geratuko da (belaunaldi berrietan aurreratzea).
- Orokorrean, galera aldi baten hasiera islatzen dute datuek.

Hori horrela izanik, ezin dugu arnaguneak galtzen utzi. Arnaguneak eta udalerri euskaldunak baliatu egin behar ditugu gainerako eremuak euskalduntzeko. Baina, nola eragin arnaguneetan? *“Esnatu ala hil, euskararen oraina eta geroa, diagnostiko baten argitan (Iurrebaso eta Goikoetxea)”* liburuak zenbait gogoeta egin ditu galdera horren inguruan, eta horietako bat honakoa: hiztunen kontzientzia eta ahalduntzean eragin behar da.

Argi dago orain arte ez dela arriskurik ikusi, inguru euskaldun hauetako herri-tarrak ez baikara jabetzen bizi dugun galeraz, besteak beste, euskara indartsuago ikusten dugulako beste eremu batzuetan baino. Beste batzuekin alderatuta ‘ez gaude hain gaizki’ pentsatzen dugu sarritan, baina datuek bestelako panorama bat erakusten digute. Egoera larri horren aurrean begiak irekitzeko tenorea da, hizkuntza-politikan eta hiztunen portaeran aldaketak egiteko momentua. Izan ere, aldaketa esanguratsuak emanen balira 2036ko proiektzioak iragarri duena ez litzateke beteko.

Eman diezaiozun behar duen arreta eta egin dezagun denon eskura dagoena egoera iraultzeko eta euskarari arnasa ematen jarraitzeko.


Esnatzeko garaia da!

Animen gaue

Aurten Leitza sorpresaz jaso dugun ekimen berri eta parte hartzaile bat izan dugu urriaren 31n. Azkeneko urteetan indarra hartu duen eguna da, batez ere kanpotik etorritako ospakizun baten eraginez. Euskal Herrian ez da berria, ordea, garai batean hemen ere ospatzen omen zen Gau Beltza, hala kontatu izan dute adinekoek: kalabazak edo arbiak hustu, kandela txiki bat sartu eta bide bazterrean jartzen omen zituzten, bizilagunak beldurtzeko eta hildakoen arimek bidea erakusteko.

Erritu horietako batzuk berreskuratu eta berriak sortzeko ahaleginean dabilta herri asko, horietako bat izan da Leitza. Animen gaue antolatu dute aurten, lehenbiziko aldiz, Alke Kultur Taldearen babespean. Izugarritzko arrakasta izan du ekimenak, batez ere Marilo eta Marilaren eskutik eskaini zuten Animen ibilbideak. Jende askok parte hartu zuen, bai pertsonaiak gorpuztuz, baita bidea eginez ere.

Animen gauean heriotza eta beldurra erdigunean jarri nahi izan dituzte antolatzaileek. Heriotzaren gaiaz hitz egiteko beharra ikusi dute, baita txikienekin ere, eta era berean, ahalik eta naturalen egitea aldarrikatu nahi dute. Horretarako aproposa ikusi dute Gau Beltza, eta Animen gaue izenarekin, beldurrei modu kolektiboan aurre egiteko ospakizuna antolatu dute. Hona hemen gau ilun eta jendetsu hartako irudi batzuk:







Lian artistak egindako murala.

Segi dezagun

argiak pizten



Gaztetxearen obra, okupazioa ta gero.

Atekabeltz Gaztetxeak 20 urte egin dizkigu aurten. Baina gaur egun ezagutzen dugunaz haratago, historia handiko eraikina dugu Atekabeltz. Badira urte batzuk herritarrek auzolanean etxe hau eraiki zutela, baina, lan horren ondoren etxea herritarrentzat izan ordez, ehun urte baino gehiagoz Guardia Zibilaren kuartela izan zen.

2004an, Guardia Zibilak lekuz aldatu ziren eta eraikina hutsik gelditu zen. Ordurako, Leitzako Gazte Asanblada biltzeko espazio bat topatzeko asmoz mugitzen hasia zen. Denbora



2025. Urtea, 20. Urteurrena.

batez udalaren biltegi izan arren, gazteek beraien beharrei aurre egiteko 2005eko uztailaren 20an Atekabeltz okupatu zuten.

Milaka amets betetzeko prest, auzolanean eta gazteen (eta ez hain gazteen) indarra baliatuz, etxeari itxuraldaketa bat ematen hasi ziren: gelak garbitu, zikinkeria atera, espazioak sortu, konponketak egin, etab. Asteak eta hilabeteak lanean aritu ondoren, herriarentzat eskaintza anitza antolatzen hasi ziren Gazte Asanbladako kideak, autogestioa eta auzolana oinarri.

2010. urtean, udalarekin elkarlanean, gaztetxe soil izatetik Herrigune izatera igaro zen. Honela, herriko beste hainbat eta hainbat eragile gela hauetan biltzen hasi ziren, eraikineko argiak piztuz eta etxea goxatuz. Benetako elkargune bilakatu zen: Herri Mugimenduaren etxe, Gazte Mugimenduaren eskola, eragileen topaleku... Ordutik, asko eta asko izan gara eraikinetik pasatu garenak; izan militantzia esparru gisa, izan pa-



2009. Urtea, 4. Urteurrena.



2023. Urtea, 18. Urteurreneko paella txapelketa.



2019. Urtean, Lian-ek alde osoko murala egin zuen.



2021ean, 16. Urteurrena.

rrandarako leku paregabe bezala... Baina denak gure hazitxoa jarritz.

Urteak joan eta urteak etorri, Atekabeltzek mota guztietako eskaintza ekarri digu herrira; baita, 2020. urtean COVID-19aren pandemiak herria astindu zuenean ere. Nahiz eta, antolaketa-erako zailtasunak topatu, beste hainbat lekutan bezala, guzti honek ez zuen Atekabeltzaren jarduna eten.

Bistan da COVID-ak, gizartearen indibidualismoaren gorakada ekarri zigula, eta gazteongan ere eragin handia izan zuela. Esan bezala, urte arraro samarrak izan ziren pandemiakoak, eta bere ondorioak ere eragin zituzten; gauza asko agerian utziz, lanketa berriak sortuz, batzuk indartuz eta beste batzuk ahulduz... Egoera honek Atekabeltzen antolaketari buelta ugari ematera eramán gintuen. Zertan ari gara? Nondik gatoz? Nora goaz? Zein dira gure oinarriak?

Guzti hauek argitzeko eraikinean parte hartzen dugun eragile guztiak (ia) hilebetero biltzen hasi ginen, galdera hauek pixkanaka landuz eta erantzun bat bilatuz.

Ez da lan makala, baina bidean goaz, 20 urteren ondoren, oraindik argiak pizten, ametsak sortzeko ahaleginak egiten, elkarguneak indartzeko espazioak egokitzen, herrigintza eraikitzen... Aipatu dugun guzti honek egiten duelako etxe hau, guzti hau delako Atekabeltz: auzolana eta autogestioa. Askotan esan dugun bezala oinarri ideologiko argiz osatutako eraikina; Atekabeltz feminista, antiarrazista, dekoloniala, ez-kapazitista, antikapitalista, euskaltzalea, librea... izango da edo ez da izango.

Izan ere, denon artean egiten dugu Atekabeltz, eta Atekabeltzek egiten gaitu gu. Denok dugu zer eman, zer egin eta zer esan.

Eskerrik asko 20 urtez elkarrekin eta auzolanean Atekabeltz egin dugun guztioi. Segi dezagun argiak pizten, gora Atekabeltz!

Leitza

Joana Sagastibeltzaren begietan

Marmarik badu beti argazkiei eskaintako atal bat, herriko paisaiak, bazterrak edo tradizioak erakusteko balio duena. Egile bakoitzaren esku izaten da aukeraketa, norberak beretik sortu duena eskaintzen du hemen: bizi izan dituen momentuak, bizipenak eta tokiak jasotzen ditu irudietan. Aurtengoan, 2025eko aldikarian, Barreneko Joana Sagastibeltzak ateratako argazki bilduma ekarri dugu. Gozatu!



Artaburuak.



2025eko pesta bezpera.



Leitzeko pestak.



Elizako atea.



San Juan bezperako sua.



San Juan bezperako suaren gainean saltoka.



Zezensuzkoa.

Erletako guraso batzuk *Etorri euskarara!* ikastaroan euskara ikasten.



Etorri euskarara! ikastaroa euskaraz ez dakiten gurasoentzat

Erleta eskolako ikasleen gurasoek euskara ikasteko ikastaro berezitua da honakoa eta doakoa, gainera.

Etorri euskarara! izenarekin gonbidatu dituzte euskara ez dakiten gurasoak egitasmo berri honetan parte hartzera. UEMAk, gure eskualdeko euskara zerbitzuak eta IKA euskaltegiak antolatuta dute. Egitasmoaren **helburua da euskaraz ez dakiten gurasoek euskara modu praktikoan eta eraginkorrean ikastea, seme-alaben ikastetxean bertan eta haiek eskolan dauden bitartean**. Horretarako, IKA-k gurasoen beharretara egokitutako metodologia prestatu du, honako helburu hauekin: seme-alaben ikasketa-prozesuan bide-


lagun izateko baliabideak izatea, gurasoen arteko harremanetarako oinarritzko ezagutza eskuratzea eta euskara lehenesteko estrategiak garatzea, haien eguneroko komunikazio-egoerak euskaraz izan daitezen.

Leitzaan 11 lagunekoa taldea sortu da, eta urriaz geroztik ari dira klaseak jasotzen, IKA euskaltegiko irakasleen eskutik. Astean bitan elkartzen dira, Erleta Eskolako gela batean.

Estrategikoa da egitasmoa. Izan ere, ikastaroak euskarara hurbiltzeko aukera emango diote gurasoei, esparru akademikoa alde batera utzita, beren eguneroko zereginetan erabiltzeko. Ikastaro honen erronketako bat da Euskal

Herrira etorri diren gurasoak euskalduntzea eta haiekiko zubiak eraikitzea, euskal komunitatearen parte izan daitezen. Euskarara hurbiltzeko horrelako ahalegina eskertzen dute familia etorri berriek. Honek aukera asko zabaltzen ditu, eta ez lanean bakarrik. Etxean ere, eskolaren bidez euskalduntzen ari diren haurrekin hobeto komunikatzeko eta herriko eta eskolako gainerako familiekin lotura estuagoa izateko balio du.

IKA-k berariazko metodologia prestatu du, gurasoen ikasprozesuan eta eguneroko erabileran eragiteko: Bi esparru jorratuko dituzte horretarako: batetik, eskoletan, eduki eta estrategiak eskainiko dizkie, hizkuntza barneratu eta



euskarazko komunikazioa errazteko; bestetik, garrantzia emanen diote eskolez kanpoko lanari, bestelako ekintzak planteatuta: adibidez, saio irekiak ikastetxeko gainontzeko kideekin, edota kultura-agendan parte hartzera bultzatu. Bide hori errazago gauzatzeko ikastaro hauek martxan diren herrietako guraso euskaldunak bidelagun izatera animatu nahi dituzte, haien laguntza oso baliagarria izanen baita. Izan ere, bi komunitateen arteko zubiak eraikitzea ezinbestekoa da euskara hizkuntza soziala izan dadin: etxekoa, kalekoa eta ikastetxekoa.

ERLETA ESKOLAN BERTAN, ETA DOAN

Ikastaroa doan izanen da, eta beraz, parte-hartzaileek ez dute deus ordaindu behar, Euskara Zerbitzuak finantzatzeko duelako, UEMAren laguntzarekin.

Erleta eskolara joaten dira gurasoak euskara ikastera, haien seme-alabak eskolan dauden bitartean. Ikastaroa eskola orduetan izatea aukera ona da, eta batzuei lasaitasuna ematen die, ikastaroan parte har dezaketelako haurren kezkarik gabe. Bide honi esker, bizitzera etorri diren herriko hizkuntzara gerturatzeko dira etorri berriak, poliki poliki.

Egitasmo hau *Euskara eta kulturartekotasuna udalerrri euskaldunetan* izeneko proiektuaren harira sortu da. Badiara hiru-lau urte Leitza proiektu hori martxan jarri zenetik. Aniztasuna eta kulturartekotasuna kontuan hartuta, euskararik ez dakiten familiak euskarara eta euskal komunitatera gerturatzeko urratsak eman nahi ditu proiektu honek, beti ere, euskara erdigunean jarritz.

Egitasmo horren osagarri gisara iritsi da ikastaro berezitu hau ere. Kanpotik etortzen diren familiei euskara ikasteko eta euskarara hurbiltzeko erraztasunak eta baliabideak ematea giltzarria da. Egunerokotasunak askotan ez die laguntzen urratsa ematera, eta beraien neurritik prestatutako horrelako proiektuak ezinbestekoak dira lagundu ahal izateko. Argi dago, eskolak soilik ezin duela beregain hartu etorri berrien eta horien familien euskalduntzea, eta horregatik horrelako ekimenak ezinbestekoak dira.



Toka Nokari buruzko 2. ikastaroa.

Hika indartzeko saiakera: NOKA eta TOKA ekimena

Gure herrian NOKA eta TOKA ekimenak baditu dagoeneko bost urte. Bost urtez, errezkoan, jo eta sua, berdinen arteko, lagunen arteko euskararen erregistroa edo ahozko hizketa informala jorratzen. Oraindik ere ongi dakiten hiztunei galdetu, eta biltzen, ikasten eta biziarazten saiatu. Aurten gainera, zer da eta, saria jaso gure lan-keta horrek Euskaltzaindiaren aldetik: *“Leitzako hitanoa: corpora osatu eta zabaltzeko saiakera”* izenburuarekin aurkeztutako proiektua saritu baitute Mintzolan, ahozkotasuna jorratzeko sari-keraren barrenean.

Hala bada, une egokia da proiektuari buruzko argibide batzuk emateko: zer dela eta sortu zen, zein ibilbide egin duen, nola garatzen ari den eta gaur egun zertan den.

EUSKARAREN EGOERA KEZKAGARRIA

Hizkuntzaren erabilera orokorrak, XXI. mendean, behera egin omen du Euskal Herrian, baita eremurik euskaldunene-

tan ere, hiztun kopuruetan gora egina-gatik ere. Gero eta jende gehiagok ikasi eta jakin, ustez behinik behin, eta gero eta gutxiagok erabili.

Hala bada, esan genezake atzera goazela ahozko erabileran; izan ere, hiztunen gaitasuna gero eta urriagoa omen da euskaraz eroso aritzeko, inkestek eta kale-neurketek diotenez. Elebidun orekatuak --euskaraz eta erdaraz berdintsu dakitenak--, edo euskal elebidunak --euskaraz erdaraz baino hobeki aritzen direnak--, gero eta gutxiago omen dira. Nafarroan, konparazio baterako, duela hogeita hamar urte, euskal elebidunen ehunekoa orain bi halakoa omen zen: 1991n %40 izatetik 2021ean %20 izatera igaro da. Elebakarrak --euskaraz bakarrik dakitenak--, berriz, desagertzear. Hori gutxi bailitz bezala, arnaguneetan ere, baita herririk euskaldunenetan ere, ahozko erabilera beherantz doakigu. Mintzatzeko erraztasuna ahitzen ariki.

Ondorio horietara iristen ari gara hizkuntzaren gaineko ikerketei begiratuta;

alegia, informazio objektiboetara jota: inkesta soziolinguistikoak, kale-neurketak... Era horretan, Leitzan berean, gure herri euskaldunean, kalean eta etxean aspaldi sumatzen genuena baieztatzeraz heldu diren datuak dira aipaturiko datu ofizial horiek. Gertaera nabarmena izandu baita gure ingurumarian belaunaldiz belaunaldi euskara-gaitasuna ahultzea, gurasoen mintzoa gurea baino frankoz aberatsagoa izatea adierazpenean, erregistroetan eta abarretan.

HIKAREN EGOERA KASKARRA

Euskararen beraren egoera txarra baldin bada, hitanoarena, zer esanik ez, are okerragoa baita. Gure hizkuntzaren ezaugarriarik behinenetakoa omen da hiketari aritzearena, hitanoa izatearena. Hizkuntzen ekologiari aztertuta, garrantzi handikoa: Euskarak munduko hizkuntzetan duen bereizgarriarik nabarmenena, oso bakana baita, beste lau hizkuntzatan baino ez baita aurkitu genero marka aditz alokutiboan: beja, mandan, nambikwara eta pumé (Blanca Urgellek



Toka Nokari buruzko 2. ikastaroa.

2021ean Berria egunkarian “*Hi-ta-to?*” artikuluan).

Dena dela, betiere, hitanoaren egoera orokorra hagitz txarra omen da Euskal Herri osoan. Haren esparru geografikoa murrizten ari omen da, emakumezkoen tratamendu motaren, nokaren ezagutza eta erabilera maldan behera ziztu bizian, eta mutilen artean ere erabilera okerra eta traketsa zabaltzen. Hizkuntzalari-tzan-eta azterlan asko egin dira herriko hizkerez, eta guzietan errepikatzen da joera hori bera.

Leitzan ere antzeko egoeraren aurrean geundeko: mutilenari eusten zaio, baina ongi aritzen direnak adinean gora doaz, 50 urtez gorakoak edo zaharragoak, orokorrean. Noka edo neskekikoa, berriz, 75 urtez gorako gutxi batzuek baino ez dakite, eta kalean entzutea arrunt zaila da.

Bittorio Lizarragak, aspaldi, 1998an, Leitzako hitanoaz honakoa azaldu zigun (Mikel Olanoren “*Areso eta Leitzako hizkerak*” liburuan): “*Hitanoa makal antza ageri zaigu euskara frankotan. Irudi du garai batean orokorra zena egungo euskararen egoera ahulak, beste beste, arrunt joa utzi duela. Gerora begira ere ez du askoz ere itxura hobetik erakusten.*” Horretaz gain, ordurako emakumeena galdutzat-edo jo omen zitekeen, xahar batzuen ahotan galtzen ari zen mintzoa izaki.

HIKAREN EGOERA IRAULTZEKO EGITASMOAK: BERRESKURATZEKO SAIAKERAK UGARITZEN

Egoeraren larritasuna eta gorritasuna ezin ezkutatu ditugu. Baina, hala ere, azkeneko urteotan, hika eta, batez ere, noka berreskuratzeko lanean hasiak dira herri askotan: Oñati, Zumaia, Arrasate, Azpeitia, Azkoitia, Oiartzun, Usurbil, Hernani, Beasain, Zestoa, Segura, Durangaldea, Arratia, Goizueta, Baztan, Etxarri Aranatz, Zarautz, Orío, Leizta...

Ekimen interesgarri asko egiten ari dira, nokaren egoera irauli nahian-edo gehienak, hizkuntzaren beraren erabilera handitzeko balio lezaketanak, bidenabar. Herri batzuetan ikastaroak eta tailerrak ematen ari dira. Beste herri batzuetan liburuxkak, liburuak edo bes-telako materialak sortu dituzte, jendeak hiketan ikas dezan. Aplikazioak ere sortu dira mugikorrerako eta.

Badirudi euskal gizartean hitanoa bultzatzearen aldeko iritziak eta mugimenduak sortzen ari direla, eta gero eta herri zein erakunde gehiagoren arreta biztu duela ahozko erregistro informalak. Gainera, gaia kalean dago, komunikabideetan ere artikulak ugaritu dira. Esparru batzuetan horri buruzko hausnarketak egiten ari dira, ea zein leku beharko lukeen horrek sormenean: literaturan, bertsolaritzan...

EUSKALTZAINDIK BAT EGITEN DU HIKA MOLDEA BULTZATZEAREN ALDE

Euskaltzaindiak ere adierazi du, 2025eko martxoan, bat egiten duela hika moldean-hemenka bultzatzen ari garen ekimen guziekin, besteak beste, lagunarterako hizkera erabilgarria baita. Honako hau ere esana du martxoko adierazpenean: “*Hikako moldea egokia da lagunartean euskaraz egiteko eta lagunarteko hizkera informalar indarra emateko. Elkarri hika egiten dioten solaskideek elkarren arteko hurbiltasuna eta konfiantza estutzen dute hiztunen arteko zilbor-hestea sortuz. Hitanoa, euskararen bilakaeran, senidetasun eta lagunarteko harremanen mintza-moldea dugu, bereziki solaskideen arteko adiskidetasun giroko hizkera informalean erabilia.*”

LEITZAN ERE HIKAREN GAIKOA PROIEKTUA

Kontuak kontu, garbi dago euskaraz gozo aritzen direnak gero eta gutxiago direla orokorrean, eta, zer esanik ez, hiketan aritzen direnei buruz: gero eta gutxiagotan eta okerrago egiten dute.

Bestalde, gazteei dagokienez, ahozko gaitasuna nahikotasunez aritzekoa gero eta gutxiagok dute, eta goxo-gozo-aberats aritzeko gai ez baldin badira,

Hika eta toka. Noka ere toka!

*Hiketari ikasteko eta gure herria hobeki ezagutzeko
auzolanean egindako liburua*



2.

Argitalpena

Fernando Oizartzun Sagastibeltza

nekez ariko dira euskaraz. Gainera, idatzizko euskara neutrala eta formala baino ez dute jasotzen gure gazte gehienek, ahozko euskara informal adierazkorrik usaindu ere egin gabe. Ongi ikasi gabe daudela, nola erabili hizkuntza?

Josu Ozaita Azpirozek 2013an Tolosaldeko gazteek eta hitanoak eginiko ikerketan ikusi zuen gazteek hika erabiltzen ari ziren bitartean, euskaraz ari zirela. Hitanoa erregistro informalera-ko oso egokia zaiela, kale erabilera bultzatzeko oso egokia izan litekeela, gazteak betetzen dituen zenbait espazio irabazteko egokia izan litekeela.

Euskara akademikoa eta eskolakoa ez baitaie eroso ahoz aritzeko. Leitzan ere badira arrastoak hori hala dela pentsatzekoak. Gazteek beren hizkera berezkoa, informala, libre eta naturala behar!

NOKA ETA TOKA PROIEKTUAREN SORRERA

Hasieran aipatu ditugun aurrekari horiekin guziekin, sortu zaizkigun arrenkura guziekin, nor den euskaltzaleak zerbait egin behar! Horiek gogoan eta bihotzean, Leitzan noka, neskekiko mintzoa, ez desagertzeko asmoa sortu zen,

Noka Toka Ikastaroa

8
saio



Hiketari oinarrituko maila lortzeko.
Noka eta toka aritzen hasteko Leitzako hizkeran.
Eduki teorikoak eta hizketari aritzekoak.
Metodologia komunikatiboa eta parte-hartzailea.

Eguna eta ordutegia: ostirala, 19:00-20:30
Lekua: Mimukai aretoa.

Izena ematea Irailaren 22ra arte
Euskara Zerbitzuan
948-510814
laga@iparmak.eus
649 36 41 89

Egutegia
urriak 20 eta 27
azaroak 10, 17 eta 24
abenduak 1, 15 eta 22.



eta denboraren eta lanaren poderioz proiektu edo egitasmo bihurtu.

Hika eta toka. Noka ere toka! liburuan gehiago eta sakonkiago aztertzen dira hiketako kontuen aldeko mugimendua herrian nondik nora joan izandu den. Gauzak ez errepikatzearen, laburpen ttikitto bat baino ez dugu eginen, egitasmoa ongi uler dadin.

XXI. MENDEAN IZANAGATIK ERE, HIKETAKO KONTUAK LANTZEKO BEHARRA

Beharrak erakutsi zigun guri ere, gertatu ohi den bezala. Hala, ALKE kultur taldeak duela urte batzuk ekin zion herriko kultur ondarea biltzeari: ihauteriak, orantzaroa eta abar. Eta horretarako, adin handiko jendearengana jo, eta aldiro gauza bera gertatzen zitzaigun hizkuntzarekin: kontu mitologikoetan, orantzaroari buruzko aipamenetan eta bestelako kontu zaharretan ere, aberastasun izugarria gauzak adierazterakoan, eta hika nagusi elkarriketetan eta abarretan, nola toka, hala noka.

LEITZEKO HIKETAN

ZUKA NOKA TOKA

NAIZ ZAA DA GAA DIE	NAN HAIZ DON GATTON DITTON	NAK HAIZ DOK GATTOK DITTOK
---------------------------------	--	--

EE, MAIATZEN
HIKALDIE LEITZEN.

BAI! NESKAK E HIKE
EUSKARALDIN.

NERE AMONAK
BADAHI. SAIAUKO
GAA? GATTON!

NITZEN ZINEN ZEN GINEN ZIEN	NINDOUNEN HITZEN HUEN GINUZENEN HITTUEN	NINDOUNEN HITZEN HUEN GINUZEN HITTUEN
---	---	---

ZAT
ZACTZO
ZAO
ZAI
ZAOA

ZÍTZIEN
ZAN
ZÍTZION
ZÍTZIUK
ZITZIOEA

ZÍTZIEK
ZAK
ZÍTZIOK
ZÍTZIUN
ZITZIOCKEA

DIEZO DIOZO DIUZU DIZO DIZULU DIZUE DIZOT DIOT DIO DIT	DION DIUN DIN DINU DINEA DINET Z(E)IONET ZEION ZEIOK ZEIOKJEN	DIEK DIOK DIUK DIK DIU DIE DIT Z(E)IOAT ZEIOK ZEIOKJEN
---	--	---

DOT DOZO DO DIU DUE DITTOT OTTO DITTUE	DINET DON DIN DIU DINEA ZETINET ZETIN ZETINEA	DIT DOK DIK DIU DIE ZETIT ZETIK ZETIE
---	--	--

NUN ZINUN ZUN GINUN ZUEN NITTUN ZINUZEN ZITTUN	NINE(NE)N HUEN ZINE(NE)N GINENEN ZINE(NE)N NETINE(NE)N HITTUEN ZETINE(NE)N	NIEN HUEN ZIEN GINIEN ZIEN NETIEN HITTUEN ZETIEN
---	---	---



EON

NAO ZAUE DAO GAUDE DAUDE	NEON HAO ZEON GEUDEN ZEUDEN	NEOK HAO ZEOK GEUDEK ZEUDEK
--------------------------------------	---	---

JOAN

NOA ZOAZ DIE GOAZ DIZ(TEA)	NIN HOA ZIN GIZ(T)EN ZIZ(T)EN	NIK HOA ZIK GIZ(T)EK ZIZ(T)EK
--	---	---

IBILLI

NABIL HABIL DABIL GABILTZE DABILTZE	NEBILLEN HABIL ZEBILLEN GEBILTZEN ZEBILTZEN	NEBILLEK HABIL ZEBILLEK GEBILTZEK ZEBILTZEK
---	---	---

EUKI

DAU(Z)KET DAU(Z)KE(T)ZO DAU(Z)KE DAU(Z)KU DAU(Z)KEA	ZEUK(Z)KENET DAU(Z)KEN ZEUK(Z)KEN ZEUK(Z)KUNU ZEUK(Z)KENE	ZEUK(Z)KET DAU(Z)KEK ZEUK(Z)KEK ZEUK(Z)KU ZEUK(Z)KEA
---	---	--

EAMAN

DEAMA(Z)KIT DEAMA(Z)KITZO DEAMA(Z)KIT DEAMA(Z)KIU DEAMA(Z)KIE	ZEAMA(Z)KINET DEAMA(Z)KIN ZEAMA(Z)KIN ZEAMA(Z)KINU ZEAMA(Z)KINEA	ZEAMA(Z)KIT DEAMA(Z)KIK ZEAMA(Z)KIK ZEAMA(Z)KIU ZEAMA(Z)KIE
---	--	---

AMETS! HIK E ASMATUKO
DON HIKE.

BAI ZEA! EZ DAKIT BA!
NOLA?

BAI NESKA. GUK
ITTEN DINU. SAIA
BINIPIN.



GEHIO NAHI?



SOOTZAILA: FERNANDO OIARTZUN. DISEÑU: PABLO FEO

Orduan, gure alde zureko ustearen aurkakoaz oharu ginen: alegia, oraindik ere bazirela hiztun oso-osoak Leitzan, erregistro guzian jabe euskara aberats-beratsean. Hor etorri zen gure asmoa: gure aurreko horien jakinduria ikastea, ustiatzea, biltzea eta ondoren zabaltzea gauza handia litzateke gure euskararentzat; batez ere hiketako moldea, eta bereziki noka alde-aldea biltzea izugarria litzateke kultur taldearen lanetarako ez eze, herriar guzientzat ere. Ba, saia!

HIKA ETA TOKA. NOKA ERE TOKA! LIBURUA ARGITARATUA

Garbi zegoen gauzak ongi egiteko bazezgoela norekin saiatua. Beraz, 2020. urtean gure hika moldea ikertzeari eta osatzeari ekin genion. Emaizta bi urte igarota etorri zen: Leitzako hitanoa jorratzen duen liburua: *Hika eta Toka. Noka ere Toka!* liburua argitaratu zen eta herrian zabaldu. Lagundu zuten guzietan oparitan eman, eta gainerakoak herriko liburu-dendetan salgai paratu.

Liburuak honakoa eskaintzen digu: hiztun batek hiketan ongi aritzeko, neskekin nahiz mutilekin, behar duen guzia, gutxi-asko. Hiketarako beharrezko diren adizki guzikiak testuinguruan txertatuak: Leitzako hiztun gaituek esanak, adieraziak, beren erara. Gainera, adizki guzietan dute adibide erreal bat gehitua. Eta hori gutxi bailitz bezala, 100 bat kontaktuzun zoragarri ere hor daude, hasi eta buka, hiketan esanak.

HIKETAKO MOLDEA LANTZEKO IKASTAROKAK, ETA ZABALTZEKO BIDE OSAGARRIAK

2023ko udazkenean, *NOKA TOKA* izeneko oinarritzko lehen ikastaroa eskaini genuen, eta urritik abendura bitartean 10 ikasle hor aritu ziren gurekin batera ikasten eta praktikatzen beste hainbeste saioetan. Jendea pozik gelditu, eta 2024ko udaberrian, martxotik ekainera, jarraipen-saio batzuk antolatu genituen erabileran sakontzeko.

Ondoren, 2025ean jendeak segitu egin

nahi, eta otsailean talo-tailerra antolatuturik, hilean behin gutxienik elkartzea adostu genuen. Hala, aurtan hasi ginen hilean behin elkartzen pintxo-potearen inguruan, betiere mingaina hiketan asintzeko. Ekimen horrek martxan dirau.

2025EKO AZAROKAN BIGARREN IKASTAROA

Aurtan, azaroko asteazkenetan, beste ikastaro labur bat eskaintzea erabaki genuen, Noka Toka izenez bataiatu, eta baita egin ere. Beste 10 lagun arituak oraingoan ere. Oinarritzko ikastaro laburra baina sakona. Mingaina askatzen hasteko baliagarria.

LIBURUKO KONTAKIZUNAK ENTZUNGAI INTERNETEN

2022an liburu formatura eramandako hura, ikastaroetan eskainia, 2024az geroztik entzungai daukagu. Liburuan biluriko kontu mitologikoak, emakumeen bizimoduari buruzkoak, eta abar interneten dauzkagu ahotsak.eus helbidean.



Ima Zestau.



Fernando Oiartzun.

Webgune horretan, honako izenburupean hor dauzkagu: “*Leitzako hitanoa berpizten: Hika eta toka. Noka ere toka!*”: <https://ahotsak.eus/proiektuak/leitzako-hitanoa-berpizten-hika-eta-toka-noka-ere/>

LIBURUETATIK ETA SUKALDE ZULOTIK HERRIKO KALEETARA IGAROTZEN

Nokaren izatea bera ikusarazten eta erabilera jorratzen ari gara etengabe, herrian hikaren presentzia gero eta gauza arruntagoa izan dadin. Azken boladan, honako ekintza hauek aipa genitzake:

Euskaraldia — hikaldia antolatu zen 2025eko udaberrian, eta 110 lagun baino gehiago izandu ziren ekimenarekin, hikaldiarekin, bat egin zutenak. Gainera, ekimen horretan Leitzako adizkien bilduma bat banatu zitzaizen parte hartzaileei.

Plazaola eta Marmari aldizkarietan ere argitaratu dira hitanoaren inguruko artikulak, kontuak edo ipuinak. Konpaziora, iaz *Marmarin* nor-nork aditzen taulak eta adibideak eman ziren, hiketan nahiz zuketan.

Bestalde, Leitzako Euskaltegian ize-na emateko ahozko iragarkia, 2025-2026. Urtekoa, noka egin da, eta Leitzako usadioak eta tradizioak biltzen dituen “*Orantzaroa, ilunbetik argitara*” liburuxka ere, haurrei zuzendua, elkarriketak hika daude.



EUSKALTZAINDIAREN SARIA JASO DU AURTEN LEITZAKO PROIEKTUAK

Euskaltzaindiak, Mintzola proiektuaren bidez, euskaraz egiten den ahozko jardunari buruzko bi ikerketa-lan saritzeko deialdia argitaratu zuen 2025eko martxoan. Irabazletako bat honako hau: *Leitzako hitanoa: corpora osatzeko eta erabilera berpizteko saiakera*.

Proiektua aurkezterakoan, besteak beste, honako kontu hauek nabarmendu genituen:

Leitzako noka edo neskekin mintzatzeko erabili ohi den hitanoaren behin betiko galera galaraztea dugu helbururik behinena. Horretarako, lehendik egin dagoenaz gain, corpus-eduki bilketa sakona egin behar da, eta hitanoaren transmisio-etena gainditzeko hiketako moldea irakatsi eta herrian zabaldu.

Badira Leitzan desagertzeko arriskuan diren eduki linguistiko franko. Oraindik ere bada zer ikertua, zer bildua, zer ikasia, eta zer irakatsia.

Bestalde, hika moldea zabaltzea eta irakastea hagitz garrantzitsua da: “gure proiektu honekin azken hamarkadetako

transmisio-etena gainditu eta hitano-hiztun berriak sortzea ahalbideratu nahi dugu”.

ETORKIZUNERAKO GAKOAK: AUZOLANA ETA JARRAIKORTASUNA

Herri askotan horrelako ekimenak segidarik gabe gelditu dira, ezerezean. Jakina, hizkuntza kontuetan garrantzi handikoa ez eze, ezinbestekoa baita segimendua; alegia, ikasitakoa erabiltzea, ikasitakoa berritzea, erabilerarako egokiera eskaintzea etengabe.


Badakigu erabiltzen ez den mintzoa, herdoildu eta hutsaren hurrengoa bihurtzen dela. Eta errezkotasuna da, hain zuzen ere, gure proiektuari balio erantsia ematen diona. Jo lanean, eta segi! Saia, eta eutsi!

LANTALDEA DENAREN GAINETIK: AUZOLANEZ SORTURIKO EGITASMOAK BERE HORRETAN SEGITZEN DU

Lantalde finko eta sendoa daukagu proiektuaren atzean. Lau leitzar lanean etengabe, auzolanez. Bi irakasle tituludun, helduen euskara-irakaskuntzan eskarmentu handikoak: Ima Zestau Barai-bar, 40 urtez eskolak ematen aritua euskara helduei irakasten; bigarrena, berriz, Fernando Oiartzun Sagastibeltza, 20 urtez aritua irakaskuntzan. Beste bi ki-deak, argiak eta burutsuak, inon argirik



Toka Nokari buruzko 2. ikastaroa.



Fernando Maxux Sagastibeltzarekin.



Fernando Miel Sukuntzarekin.

eta burutsurik bada. Aurreko tituludun horien erakustunak: Maria Jesus Sagastibeltza eta Migel Sukuntza, elebakar izanduak 20 urte bete arte edo. Ez dute euskarazko titulurik, baina hizketan euskarazko titulurik gorenaren C2 agiri-dunak baino askoz jolastun hobeak dira.

ESKERTZA LAGUNTZAILE GUZIEI, HERRIKO NAGUSIEI

Aurrez aipaturikoez gain, duela 20 bat urte abiarazitako ikerketetan herritar askoren laguntza jaso dugu. Hasieratik beretik haien babesa hagitz handia eta nabarmena izandu da. Gainera, horrek berdintsu dirau, zoritxarrez bidean batzuk galduagatik ere. Dena dela, haien mintzo aberatsak iraunen du ondoren ere. Jasoa egoki.

Orain ere herritar askoren laguntza jasotzen ari gara, eta herritar gehiagorekin ere sakontzen segitu nahi dugu geure hizkuntzaren lanketa horretan. Aurrez, guzi-guziei, eskerrik asko, bihoitzez.

EMAKUMEEI ZUZENDURIKO AIPAMEN BEREZIA

Noka edo emakumeekiko hizketa berreskuratzen ari gara, emakume kementsu, borrokalari eta eredugarriak ditugulako herrian. Emakume gaixoak! Gorriak eta beltzak ikusiak. Zokortuak. Menderatuak. Gizonen mende, boteredun guzien mende, bizitza sozialean tarterik gabe utziak, baztertuak gizarteko arlorik gehienetan. Senperrenak ikusiak, baita hizkuntza infor-

mala eta kalekoa erabiltzerakoan ere. Baina, hala ere, lotsarik eta beldurrik gabe, eutsi hizketa horri, traba asko paratuagatik. Emakumeek aske eta berdinak sentitu eta bizi nahi hizketan, hiketan!

NOKARI, NESKEN HIKETAKO MOLDEARI, OHARRA

Aizan, hi, **NOKA** gurea. Hinki-manka haugu, duela urte franko. Baztertu hindentu eta gaizkitu hintzen. Geroztik, ez haiz mederatu. Ezinean hortxe habil, larri antzean. Eskerrik asko aurreko leitzarrek, baserrietan-eta erazo hindentu. Gainerakoan, non hengoke? Baina, hago lasai: guk maite haugu, bihoitzez. Aurrerantzean, baihangoke gure baitan.



Erleta eskolako jangela komunitarioaren proiektua

Gure eskolek eskualde-eskola izatera izateagatik, Hezkuntza Departamentuak kudeatutako jangela-zerbitzua dute. Zerbitzu hau urteetan lizitaziora aterata izan da, eta enpresa handiek hartu izan dute zerbitzua; azken urteetan, gainera, eurek ezarritako prezioek nabarmen egin dute gora.

Landa eremuan kokaturik dagoen eskola izanik, gurean pairatu ditugun arazoak nahiko ohikoak dira halako beste tokietan ere. Hau da, hirigunetako jangela handietan erabiltzaile kopurua askoz handiagoa izaten da eta ondorioz, lehia handiagoa dago enpresen artean eta horregatik, normalean, jangela zerbitzua baldintza hobeagoetan eskaintzeko aukera izaten da. Herri eta eskola txikietan aldiz, askotan esleipenak hutsik geratzen dira edo lehia

eskasa izaten da eta, horren ondorioz, ezartzen zaizkigun baldintzak, kaskarragoak izaten dira.

Azken urteetan egoera hau bizi izan dugu gure eskolan. Egoera honen aurrean eta irtenbide egonkorra bilatzeko asmoz, komunitate bezala zer egin genezakeen pentsatzeari ekin genion, eta jangela herritik kudeatu ahal izateko aukerak aztertzen hasi ginen.

Lehen urratsa proiektu komunitario hau aurrera ateratzeko lan-taldea sortzea izan zen. Honela, proiektuaren lanketa egiteko komunitatea asko inplikatu zen eta askotariko ordezkariak osatu zuten lantaldea: familiek, eskoletako zuzendaritzek, jangeletako langileek, Udalak, nutrizionistak, Zaindu Leitzaldeak, ... Gainera, Beteluko Araxes ikastetxean ere antzeko egoera bi-

zi zutenez eta beraiek ere herritik kudeatzeko nahia zutenez, bi herrietako proiektuak bateratu eta elkarrekin proiektua garatzea erabaki zen.

Ondoren, eskola-jantokiak arautzen dituen 246/1991 Foru Dekretua egokitzeko eskaera egin genion Hezkuntza Departamentuari. Izan ere, Foru Dekretu hark aukera bakarra ematen zuen, Gobernuak lizitaziora ateratzea soilik alegia, eta ez zien toki-entitateei eskola-jangelak kudeatzeko aukerarik ematen, beste Erkidego batzuetako arauetan ez bezala, adibidez, Kantabrian. Eskara idatziz egin genuen eta zuzenean Departamentuarekin bileran elkartzeko aukera ere izan genuen. Esan beharra dugu, hasieratik eskaera honi buruz Hezkuntza Departamentuaren jarrera irekia eta harkorra izan dela.



Jangela proiektuaren aurkezpena Herri Aretoan.

Eskaera aintzat hartua izan zen, eta, iaz, 58/2024 Foru Dekretua onartua zen. Dekretu berri honetan aldaketa sartu zen. Orain indarrean dagoen dekretuko 9. artikulua haxe dio: “Hezkuntza Departamentuak hitzarmenak egiten ahalko ditu toki erakundeekin, zehazki eskola jantoki zerbitzuaren kudeaketa bere gain hartu nahi dutenekin.”

Legez aukera ireki eta gero, hurrengo urratsa, eta aurrera jarraitzeko ezinbestekoa, proiektua ongi jorratu eta herriari aurkeztea izan zen. Horretarako, Leitzan herritar guztiei irekitako bilkura antolatu genuen 2025ko urtarilaren 31n, eta herritarren babes oso zabala jaso zuen (133 bozkatik, 131 alde). Herritarren nahia hori zela ikusita, Udalek Hezkuntza Departamentuari hitzarmena sinatzeko eskaera luzatu zien: Beteluko eta Araizko Udalek batetik, Araxes eskolako jangela-erentzako; Leitzako Udalak bestetik, Erleta eskolarentzako. Hau da, bi hitzarmen sinatzeko eskaera egin zen.

Nafarroako Gobernuarekin hitzarmenak edukiak landu eta gero, ekainean sinatu ziren. Hau da, ikasturte honetatik aurrera eta beste hiru ikasturtez, kudeaketa udalen esku geratzen ziren hitzarmen horien arabera. Helburua, ordea, kudeaketa komunitarioa izatea da eta ez Udalek zuzenean bere gain hartzea. Horregatik, beste bi hitzarmen sinatu dira udan zehar; Leitzaren ka-

suan, irabazi asmorik gabeko elkarte batekin, Zaindu Leitzaldearekin.

Jarraian, prozesu honetan, jauzi garrantzitsu bat suposatu duen gertakari bat azpimarratu nahiko genuke. Hasiera batean, proiektuek herri mailako dimentsioa bazuten ere, aurrerago eskualde mailako dinamika bat sortu zen. Gaur egun, bi lantaldeak elkarlanean ari gara proiektua aurrera eramateko: urrats eta erabaki nagusiak era bateratuan hartzen ditugu, oztopo juridikoei elkarrekin erantzuten diegu, erosketak modu bateratuan egiten ditugu, menuak ere elkarrekin lantzen ditugu...

Baina, garrantzitsuenak, zergatik egin dugu apustu jangela-komunitarioaren PROIEKTU PILOTO honen alde?

Askok dira aipa ditzakegun onurak, bai erabiltzaileei begira, baita eskualdearen ikuspegiaren aldetik ere:

- 1 **Burujabetzarako** aukera paregabea: proiektua bertan sortu, hazi eta elikatzeak aukera eskaintzen digulako.
- 2 Enpresa handien oligopoliotik atera, eta **kudeaketaren** eredia **tokikoa** eta hurbila egin daitekeelako, proiektuaren helburua ez baita inor ekonomikoki aberastea, eskualdea era askotan aberastea baizik.
- 3 **Ekonomia zirkularra** bultzatu: bertako ekonomia sustatuko dugulako.
- 4 **Garaiko eta tokiko elikagai** osasuntsuak tokian tokikoari lotuago kontsumitzeko bidea izan daitekeelako.

5 **Erabakiak** bertan hartu: jangela-mahaia askotariko pertsonez osatua egoteak ikuspegi guztiak kontuan hartzen lagunduko duelako.

6 **Proiektu bizia** izango da, eguneroko jarraipena izatea ahalbidetzen duela, eta, beharren arabera, aldaketak proposa daitezkeelako.

7 Eskola **proiektu pedagogikoa** sendotuko da, jangelako proiektua eskolakoarekin uztartuko delako.

8 **Hondakinen kudeaketa** eta **jana-riaren xahuketan** aitzindari: elikadura zirkularraren proiektu-pilotoan parte hartzeko aukera eskaini zaigulako.

9 Gure proiektua beste proiektu batzuei atea irekitzeko **bidea** izango delako: guraso elkarte ugari dira antzeko proiektuak aurrera eramateko interesarekin guregana jo dutenak.

Proiektu hau osatzen ilusio eta indar handiz jardun dugu epe luzez. Abuztuaren amaieran parte-hartzaile guztiak bildu genituen, kurtso berria hastearekin batera gogotsu abian jartzeko, hau da, jangela-eredu berriaren atea irekitzeko. 2025eko irailaren 4an piztu genituen jangela-komunitarioko sukaldeko suak eta egunero lanean jarduten jarraituko dugu. Denon artean erakitzen ari garen proiektu honek ibilbide luzea du aurretik eta nahiz eta batzuetan gazi eta bestetan gozo denon artean aurrera egingen dugulakoan gaude.

SALTO!

Udalekuetan Leitzako gazteak euskalkiz euskalki saltoka

Udalerri euskaldunetako gazteentzako udalekuak dira *Salto!* izenekoak. UEMak antolatzen ditu eta aisialdia euskaraz eta euskaratik gozatzeko aukera eskaini nahi die parte-hartzaileei. Euskararen erabileran jartzen dute azpimarra, egunerokoan euskaraz hitz egiteak duen garrantziaz ohartarazi nahi baitituzte gazteak, eta hortik abiatuta honako helburu

hauek ere baditu: udalerri euskaldunetako gazteak euskararen inguruan sentsibiltzatzea, kontzientziazatzea eta saretzea.

Ibiltaria izaten da ekimena, herri batean abiatu eta zenbait herri zeharkatzen dituzte oinez. Aurtengo udan Goierri aldean ibili dira: Baliarraindik Idiazabalerako bidea egin dute, Zaldibiatik eta Ataundik pasatuz.

Aurten 120 gazte euskaldun bildu dira ekaina eta uztaila bitartean, 2 txandatan banatuta. 2007. urtetik 2010.era bitartean jaiotako 60na lagun elkartu dira txanda bakoitzean. Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako neska-mutikoak elkartzen dira Salton! eta aurten 9 leitzar joan ziren udaleku ibiltari honetara:

1. Txandan



Peio Agirre Agirre

Oso esperientzia polita izan da: ekintza ezberdinak egin genituen, jende ezberdinarekin egon ginen, eta gauza berri asko ikasi genituen.

Ibiltaria izanagatik ez zen gogorra izan, herri batek besterako ibilbideak motxak ziren, bi ordukoak edo, eta eroso egin genituen. Lehengo urtean luzeagoak eta gogorragoak izan zirela esan digute, baina gurea errazagoa izan da. Gainera, motxila handiak furgonetan eraman zizkiguten, eta ez genuen pisu handi hori bizkarrean eraman behar izan.




Izaro Urkiola Ulaia

Lehenbiziko aldia izan da udaleku ibiltarira joan naitzena, eta ez nekien nolakoa izanen zen, ez nuen pentsatu lurrean lo egingen genuenik, adibidez, kar, kar... Bestalde, lagun asko ezagutu ditugu, toki askotakoak eta euskalki ezberdin asko entzun nituen, baita sekula aditu gabekoak ere. Oiartzungo lagunak egin ditugu.

Bertso afari bat ere egin genuen, eta guk eman genizkien gaiak. Beste egun batean Idiazabalgo gaztandegi batera joan ginen, gazta nola egiten den erakutsi ziguten.

Hasieran jendea ezagutu arte, lotsa pixka bat sentitu genuen, baina behin denak ezagutu eta lagunak eginda oso gustura egon ginen. Esperientzia polita da, gomendatzeko modukoa!!


Naiara Juanikorena Mariezkurrena

Denak euskaldunak ginen, Udaleku hauetara joateko gure herriak UEMAkoa izan behar duelako, eta UEMA herri euskaldunek osatzen dute. Goiz batean UEMAkoak etorri ziren eta joko eta ariketa bidez euskararen inguruan hitz egin ziguten: “gu euskaldunak garela eta guk eusten diogula euskarari bizirik, horregatik euskaraz hitz egiten segitu behar dugula” azaldu ziguten.

Ekintza asko egin genituen, eta Baliarrainen adibidez San Juan bezperako afaria herritarrekin egin genuen.


Aritz Iturrino Arraras

Oso gustura ibili nintzen. Polita izan zen. Herri ezberdin askotako gazteak bildu ginen asko Bizkaitik etorritakoak ziren, eta haien euskalkia ezberdina da, baina azkenerako, egia esan, zerbait ikasi genuen.

2. Txandan


Uxue Agirre Caballero

Oso ongi ibili naiz. Nire lagunak ez zuten izenik eman, baina beste ikaskide pare batek bai, eta haiekin joan nintzen. Lagun asko egin ditugu Salton, eta hain gustura pasa genuen, udalekua bukatutakoan, uztaila bukaeran, lagun berri haiekin plana egin genuela eta Zarautzen elkartu ginen arratsalde pasa egiteko!


Bestalde, oso interesgarria izan da hainbeste euskalki entzutea!

Lotarako berriz, lehenbiziko gaua izan zen okerreana, postura-rik ezin ongi hartuz, baina hortik aurrera ongi moldatu ginen.


Uxue Mariezkurrena Alduntzin

Bigarren aldiz parte hartu nuen, lehengo urtean oso ongi pasatu nuelako, eta hirugarrengo batez ere errepikatu nuke gustura!

Aurtengoan “Muxuplakaje” izeneko joko berri bat egin genuen eta asko gustatu zitzaidan. Eta lagun berri asko egin genituen, eta beste Uxuek aipatu dun bezala egun batean Zarautzera joan ginen Saltoko partaide batzuk, eta 30 lagun elkartu ginen: leitzarrek, goizuetarrek, gipuzkoarrek baita bizkaitarrek ere.


Aimar Iturbe Saenz

Nire lehenbiziko aldia izan da eta lagunak animatuta parte hartu dut, eta aitortuko dut merezi izan duela!

Ibiltaria izanik, pentsatzekoa da neketsua izan zitekeela bi egunez behin oinez ibili beharra, baina batekin eta bestearekin hizketan oso erraz egin dugu.

Eta egunak ere agudo pasatu zitzaizkigun, hitzaldik, jolasak... izaten genituen. Adibidez goiz batean UEMAk esplikatu zigun Iparraldeko euskararen egoera, eta aipatu zigun gurean baino askoz euskara gutxiago hitz egiten dela han. Eta euskarak segitzea nahi badugu euskaraz hitz egin behar dugula!

Xabat txapeldun!



2025eko Nafarroako Bertsolari Txapelketa gogoangarria izan da leitzarrontzat. Ez dugu berehalakoan ahaztuko azaroaren 29an Nafarroa Arenan jokaturako finala. Izan zen herria harro egoteko nahiko motibo: Xabat Illarregi Marzolek lortu zuen txapela; hunkigarria izan zen buruz burukoa Joanes anaia-ekin jokatu izana; eta oholtzan zortzi finalistetatik 3 leitzarrak ziren, Illarregitarrekin batera Eki Mateorena aritu baitzen, finalean lehenbiziko aldiz, gainera. ZORIONAK hirurei egindakoagatik eta Xabati, bereziki, txapelarengatik!!

Xabat Illarregi Marzol Nafarroako Bertsolari txapeldunaren bukarako agurra:

*Familiari eta lagunei
hau zuen buruan dago
bertso ikasleei besarkada bat
segi bertsotan luzaro.
Eta Joanes, izango dira
halako egun gehiago
ta alderantziz tokatuko da
hortaz oso ziur nago.
Baina herria eta hizkuntza
ez bihurtzeko bi bando
esna gaitezen eta mugitu
gure mingain gure zango.
Lo hartuz gero lur honek ez du
hizkuntzarik eramango,
ta hizkuntzarik ez duen herri
bat ez da herri izango.*